



EBAZPENA (15/2009 esp., GIPUZKOAKO DEKORADOREEN ELKARGO OFIZIALA)

Osoko bilkura

Joseba Andoni Bikandi Arana jauna, lehendakaria

Juan Luis Crucelegui Gárate jauna, lehendakariordea

María Pilar Canedo Arrillaga andrea

José Antonio Sangroniz Otaegi jauna, idazkaria

Vitoria-Gasteizen, 2010eko urriaren 8an

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak (LDEA), adierazitako kideak bertan direla eta Juan Luis Crucelegui Garate jauna txostengile dela, ebazpen hau egin du GIPUZKOAKO DEKORADOREEN ELKARGO OFIZIALARI buruzko 15/2009 espedientean. Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak (LDEZ) hasi zuen hori, P.C.A. andreak ipini zuen salaketa baten ondorioz. Salaketa horretan adierazi zen Gipuzkoako Dekoradoreen Elkargo Ofizialak, ustez, lehia murrizten duten jardunbideak egin zituela.

AURREKARIAK

1. 2009ko maiatzaren 29an, P.C.A. andreak ipinitako salaketa sartu zen Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren erregistroan. Salaketa horretan adierazi zuen 2006. urtean “Arte Plastikoetako eta Diseinuko Goi-Mailako Teknikaria Dekorazio-Lanen Proiektuetan eta Zuzendaritzan” izeneko titulua eskuratu ondoren, Gipuzkoako Dekoradoreen Elkargo Ofizialeko kide izateko eskatu zuela, bere kontura lan egiteko eskubidea erabili ahal izan zezan. Salatzaileak azaldu du Elkargoak ukatu egin zuela eskabide hori, bere titulua egokia ez zela uste zuelako, goi-mailako ikasketak ez zirela argudiatuz. Salatzaileak esan duenez, Bizkaiko Dekoratzaileen Elkargo Ofizialak bai onartzen du titulazio hori.

Salatzailearen ustez, elkargoko kide izateko eskabideari egindako ukoak ezeztatu egiten du bere kontura lan egin ahal izateko eskubidea eta, ondorioz, ezin izango ditu onartu eskaini dizkioten hainbat proiektu, herri-administrazioek profesionala elkargoko kide izateko baldintza ezartzen baitute dekorazio-lanak ikus-onetsi ahal izateko.

2. 2009ko uztailaren 6an, Ekonomia eta Plangintzako zuzendariak ebazpen bidez erabaki zuen informazio erreserbatua hasiko zela, hala balegokio,



bidezko zehapen-espedita hasi aurretik, salatutako gertakariak egiazkoak ziren egiaztatzearen, Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 49.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

3. 2009ko uztailaren 6an, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak informazio ugari eskatu zion Gipuzkoako Dekoradoreen Elkargo Ofizialari, eta honek informazio-eskabideari erantzuteko idazkia bidali zion Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari. Idazki hori 2009ko uztailaren 30ean sartu zen Ekonomia eta Ogasun Sailaren erregistroan, eta bertan honakoa zioen Dekoradoreen Elkargo Ofizialak, labur-labur:

- a) Elkargoko kide izan ahal izateko betekizunak Gipuzkoako Dekoradoreen Elkargo Ofizialaren estatutuetoako 10. artikuluan daude zehaztuta.
- b) Ez dago legez eskatutako titulurik dekoratzaile lanetan aritzeko. Aldiz, dekorazioaren inguruko ikasgaiak dituzten eta lan horretan aritzeko ezinbestekoak diren jakintza-alarreko berezko ezagutza eta teknikak proportzio ezberdinetan bete ditzaketen, edo betetzen ez dituzten, hainbat titulazio eskaini dira bata bestearen ondoren hezkuntza-alarretik.

Titulu jakin batek gaitasuna ematen duen, hau da, gaitu egiten duen, balioztatze, honakoa izango da irizpide egokia: ikusi beharko da gai teknikoek bermeak eskaintzen dituzten titulua duen profesionalak lanen proiektu eta zuzendaritzak legez eskatutakoaren arabera egin ahal izan ditzan. Irizpide hori dekoratzaileen edo barrualdeen diseinatzaileen lanbidearekin zerikusi zuzena duten tituluei aplikatuz, honako zerrenda hau egin da, prestakuntza teknologikoarekin lotutako garrantziaren arabera ordenatuta: 1) Arkitektoaren eta arkitekto teknikoaren tituluak. 2) Diseinuko goi-mailako titulua, barnealdean espezialitatean. 3) Goi-mailako teknikariaren titulua, dekorazio-lanen proiektuetan eta zuzendaritzan.

Dekorazio-lanen proiektu eta zuzendaritzako goi-mailako teknikariaren tituluari dagokionez, prestakuntzaren ikuspegitik, argi dago maila txikiagoa duela, eta osagarriren bat eduki beharko litzateke lanen proiektuak, ikus-onespenak eta zuzendaritzak gauzatu ahal izateko.

Gipuzkoako Dekoradoreen Elkargo Ofizialak laster egingo du Batzar Orokorra, lanean aritzeko gaitasun nahikoa adieraziko duten irizpide objektiboak ezartzeko onargarria izango den formula bat arautzeko bere estatutuetoan.

- c) Elkargoko kide izateko eskabideak onartzeko/ukatzeko jarraitu diren prozedura eta irizpideei dagokienez, hautagaiak, estatutuetoako 10. artikuluan ezarritakoaren arabera, honakoak aurkeztu behar ditu: idatzizko eskabidea, duen titulua ziurtagiria eta dagokion prestakuntza-curriculumak.



- d) Estatuko Kontseilu Nagusian irizpide nagusia da goi-mailako teknikariaren titulua irauungi egin behar dela, ez dagoela behar bezala egokituta barrualdeen diseinatzaileen ohiko lanerako, ez dituela betetzen Europako homologazio-irizpideak, eta betiere behin-behinekoa izan beharko litzatekeen tratamendua bilatu beharko litzatekeela elkargoko kide izan nahi duten titulu horren jabeentzat.
- e) Gipuzkoako Dekoradoreen Elkargo Ofizialak beti onartuko luke elkargoan sartzeko eskabidea, beste edozein eskabideren maila berean, eta zehatz aztertuko da hautagaiak duen prestakuntza-curriculumak, izan duen benetako prestakuntza teknologikoa zein izan den egiaztatzearen.
4. 2009ko azaroaren 2an Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak kopiak eskatu zizkion salatzaileari, bai Gipuzkoako Dekoradoreen Elkargo Ofizialean tramitatu zen elkargoko kide izateko eskabidearen kopia, bai eta elkargoak emandako ukoaren kopia ere, agiri horiek ez baitziren salaketarekin batera erantsi. Jakinarazpen horretan jakinarazi zitzaion informazio hori hamar asteguneko epean bidali ezean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, eskabidea bertan behera utzi zuela ulertuko zela, eta artxibatu egingo zela. 2009ko azaroaren 2an jakinarazi zen, eta gaur arte salatzaileak ez du funtsezkotzat hartzen den dokumentazio hori aurkeztu.
5. 2009ko abenduaren 9an, P.C.A. andreak Gipuzkoako Dekoradoreen Elkargo Ofizialaren kontra salatutako jokabideei dagokienez zehapen-espedientea ez hasteko proposamena bidali zion LDEZk Auzitegi honi.
6. Auzitegiak 2010eko urriaren 8ko batzarrean eztabaidatu eta erabaki zuen gaia, Juan Luis Crucelegui Garate jauna zela txostengilea.
7. Honako hauek dira interesdunak:
- P.C.A. andrea.
 - Gipuzkoako Dekoradoreen Elkargo Ofiziala.



ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 49.3. artikulua honako hau dio: “Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak, lkerketen Zuzendaritzak proposatuta, lege honen 1, 2, eta 3. artikuluetan debekatutako jokaerak ustez izateagatik hasi beharreko prozedurak ez hastea erabakitzeak aukera izango du, eta ordura arteko jarduerak artxibatzeak aukera, legea urratu izanaren zantzurik ez dagoela irizten baldin badio”.

Bigarrena.- Lehiaren Defentsari buruzko aipatutako legearen zortzigarren xedapen gehigarriaren arabera, “Lege honetan Lehiaren Batzorde Nazionalari eta bertako zuzendaritza-organoei buruz egiten diren erreferentziak, hain zuzen ere eginkizun, administrazio-ahalmen eta prozedurei buruzkoak, autonomia-erkidegoetan arlo horretako eskumenak dituzten instrukzio- eta ebazpen-organoei buruzkoak ere badirela ulertuko da, erreferentzia horiek lege honen 13. artikuluan aurreikusitako eskumenen ingurukoak direnean”.

Hirugarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan izango dituen eginkizunak ezarri zituen apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuak, alde batetik, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia eta, bestetik, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzua bereizten ditu. Biak beren eginkizunei dagokienez Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legeak ezarritakora egokitu beharko dira. Hala, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari dagokio jarduerak artxibatzeari buruzko ebazpena ematea, legea urratu izanaren zantzurik ez dagoela uste duenean, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 44. artikuluekin bat etorriz.

Laugarrena.- Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegi honi azaldutako ebazpen-proposamenak dio, salaketa aztertuta, eta emandako datuak egiazkoak diren egiaztatzearen egin den informazio erreserbatuaren ostean, ez dela ikusi LDLren 1., 2. eta 3. artikulua urratu izanaren zantzurik dagoenik.

Bosgarrena.- P.C.A. andreak salaketa-idazkian adierazi zuen 2006. urtean eskuratu zuela “Arte Plastikoetako eta Diseinuko Goi-Mailako Teknikaria Dekorazio-Lanen Proiektuetan eta Zuzendaritzan” izeneko titulua, eta Gipuzkoako Dekoradoreen Elkargo Ofizialeko kide egitea erabaki zuela. Horretarako, salatzaileak informazioa eskatu zion zuzenbide publikoko korporazio horri, eta jakinarazi zioten zeukan titulua ez zela egokia elkargoko kide izateko. Salatzaileak uste du elkargo profesional horretako kide izateko eskabideari egindako ukoak, ezeztatu egiten duela lan egin ahal izateko duen eskubidea, lanbidean aritu ahal izateko ezinbesteko baldintza baita elkargoko kide izatea.



Seigarrena.- Gipuzkoako Dekoradoreen Elkargo Ofizialaren estatutueta 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, Gipuzkoako Lurralde Historikoan dekoratzaileen edo barrualdeen diseinatzaileen lanbidean aritu ahal izateko ezinbestekoa da elkargo profesional horretako kidea izatea. Hori dela eta, elkargoko kide egiteko ekintza formala *conditio iuris* da lanbide horretan aritu ahal izateko eta, beraz, elkargo profesionaleko kideen baldintza juridikoa dutenek bakarrik garatu ahal izango dute dekoratzaileen lanbidea aipatutako lurralde historikoan.

Estatutueta 10. artikuluan bertan dago diseinatuta elkargoko kideak onartzeko araubide juridiko orokorra. Araubide horren bitartez prozedura formala ezarri da, eta bere ezaugarri nagusia idatzizkoa dela da. Interesdunak elkargoko kide izateko egindako eskabidearekin hasi behar da prozedura, eta Elkargo Profesionaleko Gobernu Batzordearen ebazpenarekin amaitu, horixe baita elkargoko kide izateko eskabidea ebazteko eskumena duen organoa. Elkargoko Gobernu Batzordeak esango du elkargoko kide izateko eskabidea legearen eta elkargoaren estatutuen arabera den. Ebazpen hori interesdunari jakinarazi beharko zaio, eskumena duen elkargoko organoaren erabakiaren berri izan dezan.

Zazpigarrena.- Aztertzen gabiltzan kasuan, Auzitegi honek aztertzeke ipini den espedientean dagoen informazioan ez da azaltzen salatzaileak elkargoko kide izateko eskabiderik egin duenik, eta, horrenbestez, Elkargo Profesionaleko Gobernu Batzordeak elkargoko kide izateko eskabidea ukatzeko ebazpena egin duenik ere ez da azaltzen. Salatzaileak salaketa-idazkian adierazi duen gauza bakarra da elkargo profesionalarekin izandako harremana informazioa eskuratzeko izan zela, elkargoko kide izateko baldintzei buruzko informazioa eskatzeko egin zuen eskabidearen bitartez. Ez du agiri bidez egiaztatu elkargoko kide izateko eskabiderik dagoenik, ez eta elkargoko kide izateko eskabidea ukatzeko ebazpena dagoenik ere, nahiz eta Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak hori eskatu zion informazio erresebatuaren fasean. Hortaz, salatzaileak ez badu elkargoko kide izateko eskabiderik egin, inola ere ezin da esan Gipuzkoako Dekoradoreen Elkargo Ofizialak lanbidean aritzeko mugarik ezarri duenik, ez eta, ondorioz, lehiari buruzko araudia urratu duenik ere.

Espedienteko gainerako elementuak informazio erresebatuaren prozedura-fasearen bitartez erantsi ziren, eta aipatutako elkargo profesionalak Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari bidalitako datuak dira. Elementu horietan ere ez da informaziorik ez dokumentaziorik eskuratu Gipuzkoako Dekoradoreen Elkargo Ofizialak beste eskatzaile batzuei elkargoko kide izateko goian aipatutako goi-mailako tituluan oinarritutako eskabiderik ukatu izanari buruz.

Azaldutako guztia dela eta, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegi honek, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak egindako ebazpen-proposamenarekin bat etorrira, zehapen-espedienterik hasiko ez dela eta gaia artxibatuko dela



erabaki du, Gipuzkoako Dekoradoreen Elkargo Ofizialak lanbidean aritzeko mugak ezarri izanari dagokionez, ez baitago Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legea urratu izanaren zantzurik, lege horren 49.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

EBAZPENA:

BAKARRA: Onetsi egingo da Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuaren ebazpen-proposamena, zehapen-espediterik ez hasteko P.C.A. andreak Gipuzkoako Dekoradoreen Elkargo Ofizialaren aurka aurkeztutako salaketaren ondorioz, eta jarduerak artxibatzeko.

Ebazpen hau LDEZri, Lehiaren Batzorde Nazionalari eta interesdunei jakinarazi beharko zaie. Agerraraziko da ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen duela eta bere kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini ahal izango dela. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan ipini beharko da errekurtsoa, bi hilabeteko epean, jakinarazten denetik aurrera zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko urriaren 8an

LEHENDAKARIA
JOSEBA ANDONI BIKANDI ARANA

LEHENDAKARIORDEA
JUAN LUIS CRUCELEGUI GARATE

KIDEA
PILAR CANEDO ARRILLAGA

IDAZKARIA
JOSE ANTONIO SANGRONIZ OTAEGI